

TESTUA



Iñaki Goiañez Lertxundi  
(Asteas, 1980)

Bilogian Izanetako hiru eta  
irakastea. Hiru eskalatzaile amarratua; 25 urte  
baino gehiago da ramata  
eskalatzeko. Hainbat  
artikulu ditu idaztiak,  
gehienak mendia eta  
eskaldaren inguruan.  
Egun, Pyreneako erre-  
dakizkia N deada.

# GORKA KARAPETO

## SASOI BETEAN



"Baboi" 7c+, Taghia (Maroko) · ARGAZKI: EKAITZ MATE

Aupa Gorka, 9a+ mailako bidea egitea erdietsi duzu. Hori gutxi ez, eta gainera 41 urterekin. Askok esango luke ten moduan, ardoa bezala, urteekin gero eta hobea goa?

Bai, hala da, kar-kar-kar...

Askok esan didate hori. Nik neuk ez dakit ardoa bezalakoa den deskribapen egokiena, baina, ahal den bitartean salatu beharko! Saitatu gabe ez dago saririk...

Asko kostatu zaizu mailahorretako helburubat erdiestea?

Urte asko daramatzat eskalatzen, eta horikontuan hartuko bagenu bai, denbora asko behar izan dudala esango nuke. Nire helburetako bat zen, beti izan dut bunuan, baina, ez naiz itsu-iesuan hometan salatzen so nik ibili. Joan den urtean salatu nintzen, eta aurten une egokia izan dudanean berriro salatu naiz eta lortuegin dut.

Nire ibilbidearen emaitza moduan sentitu dut. Urte guzti horietan ikasi dudan esperientzia praktikan jartzeko gai sentitu naizela erakutsi dit homelako helburu bat hiltzeak. Hala ere, sasoiko egin gabe niretsat ezinezkoia izango litzateke malla horretako helburua erdiesta; biak beharrezkoak izan direla esango nuke.

Zure bizi osoko ibilbidearen emaitza dela esango zenuke, ala sasoiko zeunden une batean lorturiko emaitza zehatz bat?

Nire ibilbidearen emaitza moduan sentitu dut. Urte guzti horietan ikasi ditudan zenbait abilezia eta esperientzia praktikan jartzeko gai sentitu naizela erakutsi dit homelako helburu bat hiltzeak. Hala ere, sasoiko egin gabe niretsat ezinezkoia izango litzateke malla horretako helburua erdiesta; biak beharrezkoak izan direla esango nuke.

Esango zenuke gaur egun, esaterako, orain dela 10-15 urte baino eskalatzaile hobeagoa zarela?

Bai, baiez esango nuke. Eskalatzaile hobeak izatea ez da malla altuagoko bideak egitea. Eskalatzean zeure burua ezagutu eta erabaki egokiak hartzan jakiteak egiten zaitu eskalatzaile on.



'30 años de locura', Ba/Ia, Ciceria (Asturias). Alturas: 400m.

**Gakoren bat dagoela esango zenuke adinean aur rera joan ahala sasoiko egon eta goi-mailan aritzeko?**

Lehen aipatu bezala, nik uste zeure burua ezagutzea eta egiten duzun hori sentituz egitea da gako.

**Kirola eta aisiadiaz gain, zer esango zenuke eskaintzen dizula eskaladak pertsona moduan?**

Eskaladak lesaitasuna eskaintzen dit, izan ditzaketen kezak haztetzan laguntzen dit, eta uste dut persona moduan asko ematen didala. Eskalatzen pasa ditut nire bizitzako urte gehienak eta eskaladari esker naiz gaur egun naizen modukoa.

**Zure ibilbidean zehar dipamen edo oroitzapen berezia duen jardueraren bat?**

Asko dira oroitzapenak, baina, galdera horrek beti nire hastapenetako garaia gogorarazten dizkit. Izarraitzko harrobia eskalatzen hasi gineneko garaia ditut barru-barruan, eskalatzen hasi nintzeneko garaia. Hor hasi eta hezi nintzen eskalatzale moduan.

**Zuretzako eskalatzeko berezia den lekuren bat Euskal Herrian? Eta Euskal Herritik kanpo?**

Euskal Herrian Izarraitzko harrobia, eta Euskal Herritik kanpo, adibidez Siurana.

**Eskalatzen pasa ditut nire bizitzako urte gehienak eta eskaladari esker naiz gaur egun naizen modukoa**

**Zein dira zuretzako azken hilabete edo urteetan azpi-marratuko zenitzueen jarduera esanguratsuenak?**

Orbayu eta Zeleputza bestek beste, nire gaitasunak eskalatzale moduan egokikudeatzea lortu bainuen bide horiek eskalatu ni tuenean.

**Egun, buruan darabiluzun proiektu zehatzen bat?**

Orain arte bezala, eskalatzen jarraitzearekin konformatzen naiz.

**Egun, rokodromo bat duzu egunero kotasun eta lanbide. Eskalatzale asko rokodromoan oso zailduak daude eta haien helburuak txapelketetan daude oinarrituak, harhaitzean eskalatzeko joera alboratuz. Zer iritzi duzu gai horri buruz?**

Gaur egun asko sidatau da guztia. Ni haitzeko eskalatzalea naiz eta ez dut eskalada arrokan jardun gabe ulertzen, baina, egia da batzuek beste modu hantean bizi dutela gure jarduna. Rokodromoa entrenatzeko eta eskalatzen hasteko ezin hobea da, eta guxhomeila ulertzen dugu BiHatz Eskalada Gunea.

**Zer jarduera mota egingo dituzula uste duzu urte batzuk barru?**

Ez dut aldaketa handirik buruan; ez dut aldaketa esanguratsunik aur realisten nire bizimoduan. Suposatzen dut orain arte bezala jarraituko dudala, kar-kar-kar...

**Identifikatua sentiarazten zaituen esaldi edo lemaren bat?**

Eskalatzea kirola eta bizitzaren arteko oreka da.

Gorka 'Zeleputza' bidean (9a+)

